

Egunerokotasunetik irteteko modu bat

Futbola izan da bere pasioa txikitatik baina azken urteetan mendiko bizikleta hartu eta mendiz-mendi ibili da Nagore Elu

Nagore Elu Arantzamendi



Nagore Elu Arantzamendi (Ondarroa, 1992) txikitatik da kirolaria eta zerrenda luze bat idatzi genezake praktikatu duen kirol guztiekin. Profesioz, ordea, ikerlaria da, Biokimika ikasi ondoren ikerkuntzara bideratu du bere ibilbidea eta egun Edinburgoko Unibertsitatean dabil, postdoktore lanetan.

Futbola izan du pasio txikitatik eta 2003an hasi zen Mutrikuko Futbol taldean, hamar urte zituela. Hamasei urterekin, 2009an, Eibarko taldearekin debutatu zuen eta bost denboraldi burutu zituen bertan, tartean, superligan lehiatzeko aukera ere izan zuen. Bost denboraldi Eibarko taldearekin egin ondoren Mutrikura egin zuen buelta, beste hiru urtetarako. Behin hiru urte horiek igaro ondoren, futbola utzi zuen eta amaitutzat eman zuen bere futboleko ibilbidea. Nahiz eta futbola beti izan den gehien gozatu duen eta gustatzen zaion kirola, Eibarren bere buruari jarritako presioa dela eta disfrutatzeari utzi zion.



Behin futbola utzi zuenean Ondarroako Koaxi triatloi taldean hasi zen, zerbait berria probatzeko gogo baitzuen, eta ibilbide horretan zehar ere lortu zituen hainbat sari. Koaxik antolatutako trialoi herrikoan parte hartu zuen eta gustura sentitu zen, hortik taldean sartzeko proposamena luzatu zioten eta onartu egin zuen berak.

2017an mendiko bizikletan lehiatzen hasi zen, Bizkaiko Kopa Trailean. Beti gustatu izan zaizkio bizikleta eta mendia eta egun batean biak uztatzea bururatu zitzaion, gaur egunera arte. Hainbat lorpen desberdin bereganatu ditu: BKT eta Green Series Bizkaiko txapelketetan lortutako lehen postuak, edota Eusko Bike Challenge lasterketan lortutako lehen postua. Aipatzekoa ere, hiru egunetan gelditu gabe egin zuen Basque Expedition Race raila, oinez, bizikletan, kayakean eta rappel egiten. BKT txapelketan irabazi zuen lehen lasterketa, Zamudion, euri zaparraratan. Ordura arte ez zeukan inoiz banakako lasterketa batean orokorreko lehen postua lortuta eta nahiz eta lasterketa txikia izan, berezietako bat da Nagore Elurentzako.

Denetarik probatzea gustatu izan zaio gaztetatik, judo, arrauna, atletismoa, eskalada, txirringularitza, igeriketa, triatloia, mendi-bizikleta, orientazioa eta abar. Eta, probei dagokienez ere, denetik egin du: Antiguako ermitako igoera, 2018an Azkoitia-azpeitia maratoni erdia, Lekeitioko Otoioko kronoeskalada...

Green Series txapelketan parte hartzen zuen bitartean Bilboko Miribillako Mountine bike taldean ere ibili zen eta nahiz eta bakarkako kirola izan, beti izan da kirola taldean egitearen aldekoa. Talde honen parte izateak, aukera eman zion bakarkako kirola taldean egiteko, laguntzaile talde handia baitzeukan atzea. Lehiaketaz kanpo ere izugarrizko garrantzia ematen dio taldeari eta beti pozten da mendian lagunen bat aurkitzen duenean.

“ Bi mundu dira emakumeei dagokienez kirol bakoitzean aurkitu dudana: batetik, futboleko hasi nintzenean topatu nuena, babesik gabea, eta orain bizikletan hasi naizelarik topatu dudana. Erabat desberdina. Urte asko pasatu direlako ere izan daiteke!”

Nagore Elurentzako kirola beti izan da egunerokotasunetik irteteko modua, estresa gutxitzeko eta hobeto sentiarazteko, beraz ez du arazorik izan biak uztartzeko orduan. Egun, Eskozian bizi da eta zailagoa egiten zaio kirola egiteko denbora ateratzea, egunak oso motzak eta hotzak baitira. Baina, hala ere, lanera sartu aurretik spinning-era edo arratsaldean korrika edo bizikleta saioen bat inork ez dio kentzen.

